

MUBIL FUNDAZIOA: JARDUKETA PLANA 2025

1. DATU OROKORRAK

- **Sozietatearen izena:** MUBIL FUNDAZIOA
- **IFK:** G75223388
- **Helbidea:** Eskuzaitzeta Industrialdea, Oianguren 1
- **Herria:** Zubieta-Donostia
- **Posta Kodea:** 20160
- **Posta elektronikoa:** mubil@mubil.eus

2. XEDEA

Automobilgintzaren sektorea euskal industriaren sektore nagusietako bat da fakturazioari, enpleguari eta enpresei dagokienez (EAEko BPGaren %11,5 da). Gainera, erreferentzia garrantzitsuak ditu sektore pribatuan eta sektore osoari eusten dioten erakunde espezifikoetan (sektoreak 300 erakunde baino gehiago hartzen ditu). Lurraldeko teknologia-zentroak eta IKZak nazioarteko erreferentzia dira askotan, automobilgintzaren sektorean espezializatutako graduak eskaintzen dituzten unibertsitateak ahaztu gabe, baita Lanbide Heziketako egitura garrantzitsua ere.

Mugikortasunaren sektorea erabat aldatzen ari da, eta gaur egun gauden egoeran, iraunkortasunak are garrantzi handiagoa hartu du, mugikortasun berri bateranzko eraldaketa bizkortuz, non argi eta garbi ikusten baita ibilgailu elektriko gehiago egongo direla (adibidez, 2021ean, estatu mailan ibilgailu erabat elektrikoen matrikulazioa %34,9 igo zen 2020arekin alderatuta). Eraldaketa dagoeneko errealitate bat da, ibilgailu arin eta astunen fabrikatzaileak argi eta garbi ari dira egiten mugikortasun jasangarri eta adimendu esparruan estrategia argiak garatzearen alde, eta esku-hartze publikoak errekuntzako ibilgailuen erabilera murrizten ari dira eta ordezeko bideak sustatzen ari dira, ibilgailu elektrikoa protagonista argia izanik.

Aurretik azaldutako guztiaren ondorioz, Gipuzkoan eta lurralde mugakideetan balio-kate bat egituratzen da, zeinak agerian uzten duen lurraldetik proiektu konplexuei ekiteko aukera, dauden gaitasunak oinarri hartuta. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da gaitasun horien katalizatzaile bat edukitzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak MUBIL fundazioa sortu du. Fundazio haren helburu orokorra da mugikortasun berriari lotutako industria-jarduera sustatzea eta jarduera sortzea, bai lehendik dauden enpresentzat, bai enpresa berriak sortuz eta haiei lotutako jarduera berriak sustatuz. Horretarako, lurraldean dauden gaitasunetan oinarritzen da, eta fundazio haren zeregina ekimenak koordinatzea eta katalizatzea da, betiere hori gauzatzeko behar diren baliabideak emanez.

Topaketarako, elkarrekintzarako eta integraziorako ekosistema bat, aukera berriak sortzen dituena. Agertoki horretan, berrikuntza faktore estrategikoa eta lehiakortasun-faktorea da enpresa eta gizarte garapenerako.

Lau helburu nagusi lortu nahi dira:

- Jarduera ekonomiko berria sortzeko gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak lerrotzea.
- Jakintza transferitzeko eta negozio-hobi berriak sortzeko mekanismoak bultzatzen laguntzea, enpresa-sare berria sortzeko, dagoena eraldatzeko eta enplegu berriak sortzeko.
- Beren jarduerak erakundeen arteko lankidetzaren sare batean sartzea.
- Gipuzkoa mugikortasun berriaren erreferentzia bihurtzeko bultzatzea.

3. JARDUERAK

Bere helburuak betetzeko, MUBIL Poloak hainbat jarduera garatuko ditu bere lau lan-eremuetan:

Ezagutzaren kudeaketa:

- Prestakuntza- eta gaikuntza-proiektuak koordinatzea eta bultzatzea: ikastaroak eta masterrak.
- Zaintza teknologikoa.
- Nazioarteko proiektzioa: azokak, ekitaldiak, showroom-a
- Zabalkunde soziala: mintegiak, hitzaldiak eta foro profesionalak eta akademikoak.

Ekintzailtza:

- Gipuzkoan ekintzailtza eta berrikuntzako ekosistema bat sortzea: start-up programak diseinatu eta abian jartzea, hala nola sariak eta erronka teknologikoak.
- Garapen-fasean dauden produktu teknologikoei merkatuan sartzen laguntzea.

Azpiegitura teknologikoa:

- Eskuzaitzetako eraikin berriak izango ditugun laborategien (Lab1: energia biltegitratzearena / Lab 2: power train / Lab 3: fuel cell) jardueraren jarraipena egin.
- Eskuzaitzetako behin-betiko egoitzaren obrak gauzatu eta guztia martxan jarri.

Living Lab:

- Proba-ingurune erreal baten diseinua eta hedapena bultzatzea: ibilgailu elektrikoak (hidrogenoz eta/edo bateriaz bultzatuak), konektatutako ibilgailuak eta autonomoak, etab.
- Kargatzeko azpiegitura berrien abiaraztea bultzatzea (elektrikoa eta hidrogenoa).

4. HELBURUAK

2024 urtean, MUBIL Fundazioaren behin betiko eraikina bukatu da, eta MUBIL Eskuzaitzeta Industrialdeko (Zubieta-Donostia) eraikin berrira mugitu da, horrela, pauso garrantzitsu bat emanez. Aldi berean, 1 Laborategiko ekipamendua Tolosako behin behineko eraikinetik Eskuzaitzetako egoitzara lekualdatu da, eta era honetan, orain arteko lortutako erreferentzia kontsolidatu zein handitu egin da. Izan ere, 1 Laborategiaren erabiltzaile desberdinei zerbitzua ematen ari gara dagoeneko erreberentziazko leku izango den gure egoitza berrian.

Honez gain, bestelako urrats garrantzitsuak ere eman dira. Izan ere, Eskuzaitzetako MUBILen beste bi laborategietako azpiegituren obrak 2024 amaieran bukatuko dira. Hartara, bi laborategi hauen bidez (Lab 2: Trakzio elektrikoko laborategia / Lab 3: hidrogenoaren inguruko laborategia) lehen mailako ekipamendua instalatuta izango genuke, 2025eko hasieran dena prest izanik. 2024an, Lab 2 eta Lab 3 laborategiak kudeatuko dituen gestore teknologikoa ere aukeratua izan da, lizitazio bidez, eta kontratua ere sinatuta dago. EpowerLabs izango da bi laborategi berri hauek kudeatuko dituen gestorea. Aipatu Epowerlabs mundu mailako enpresa sendotetan aritutako profesionalenez osaturik dagoela, zeinak urte asko mugikortasun elektrikoaren esparruan lanean ibilitakoak diren.

Aldi berean, MUBIL Poloaren garapenean aurrerapauso esanguratsuak ematen jarraitzen dugu. MUBIL Fundazioaren behin betiko egoitzaz gain, MUBIL Poloan kokatuko diren Vicomtech-en zein Cidetec-en egoitza berriak eraikitzen ari baitira, biak ere MUBIL-en egoitzaren ondoan, oso gertu. Era honetan, MUBIL Poloaren sendotzen ari diren pausoak ere ematen ari gara. Ildo berean, Tecnaliaren eraikinaren obrak ere 2024 amaieran hasiko lirateke.

Bestalde, MUBILen aurrez martxan genituen gainontzeko hiru lan-eremuetan (Ezagutzaren kudeaketa, Ekintzailatza eta Living Lab-ean) ere lanean jarraitzen dugu, zerbitzu eta produktu berriak definituz eta aurretik zetozenak indartuz eta garatuz (MMA Sariak, prestakuntza-ikastaroak, lankidetzak hitzarmenak...). Ekintza hauen artean, aipagarria da Mubil Mobility Expo (MME-ren) 2024ko edizioa, non 103 erakusketari industrial batu dituen, eta ia 2000 pertsona egon diren bertan parte hartzen, era batera edo bestera.

Hori horrela, 2025an MUBIL Poloa garatzen jarraitzea funtsezkoa izango da, eta ondorengoak lirateke 2025rako MUBILen jarduera-ildo nagusiak:

- Eskuzaitzetako MUBILen 2 Laborategia eta 3 Laborategiaren inplementazioa bukatzea, era honetan MUBILeko egoitza guztiaren kontsolidazioa gauzatuz, eta eraikin guztia martxan jarriz zein enpresa desberdinei zerbitzu integrala emanaz.
- Ekintzailtza sustatzearekin eta ezagutza kudeatzearekin lotutako zerbitzuak, jarduerak hedatzea eta finkatzea, hala nola, Mubil Mobility Awards (MMA) sarien bosgarren edizioa burutzea.
- MUBIL Poloaren posizionamenduan lan egitea, nazioarteko misioak garatuz eta lotura edo lantalde berriak hedatuz.
- Lurraldeko eragileen lankidetzaren zabaltzea jarraitzea, lan-eremu guztietan.

Honako hauek dira 2025ko urteko helburu kuantitatiboak:

- Enpresei begira 6 ekitaldi antolatzea MUBILen egoitza berrian.
- 6 talde-dinamika antolatzea.
- 6 Enpresa desberdinei bisita gauzatzea.
- Beste enpresek batera feria agregatu batean aurkeztea.
- Nazioarteko 3 enpresa-misio erakartzea MUBILen inguruko enpresetara.
- MMA Mubil Mobility Awards-en bosgarren edizioa antolatzea.
- 10 erakunde berri MUBIL erakundearekin lankidetzan jardun dezaten lortzea.

5. 2025 EKITALDIKO SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

KLASIFIKAZIO EKONOMIKO	2025
1. Kapituluua: Langileria gastuak	379.790 €
2. Kapituluua: Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak	2.460.610 €
20. Errentamenduak	0 €
21. Konponketa, mantenua eta artapena	240.553 €
22. Materiala, hornigaiak eta bestelakoak	501.718 €
226. Beste zenbait gastu	18.000 €
227. Profesionalek edo enpresa espezializatuek egindako lanak	1.662.339 €
230. Dietak eta bidaiak	38.000 €
6. Kapituluua: Inbertsio errealak	1.000.000 €
620. Makinaria	920.000 €
64. Altzariak eta gainerakoak	10.000 €
650. Informazioa prozesatzeko ekipoak	10.000 €
651. Aplikazio informatikoak	10.000 €
621. Beste instalazio batzuk	50.000 €
GASTU KORRONTEEN AURREKONTU TOTALA	3.840.400 €
KLASIFIKAZIO EKONOMIKO	2025
4. Kapituluua: Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	2.500.400 €
401. Sektore Publikoko gainerako erakundeen transferentziak	400 €
460. Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentzia	2.500.000 €
5. Kapituluua: Ondare sarrerak	340.000 €
521. Finantza entitateetako kontuen interesak	90.000 €
541. Hiri-finken errentamendua	250.000 €
7. Kapituluua: Kapital-transferentziak	1.000.000 €
76. Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentzia	1.000.000 €
DIRU SARRERA KORRONTEEN AURREKONTU TOTALA	3.840.400 €

6. 2025-EKO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

6.1 Gastuen eta Inbertsioen aurrekontua

Mubil Fundazioren gastuen eta inbertsioen zenbateko nagusiak honako kontzeptu hauei dagozkie: langile-gastuak, errentamenduak, profesionalek edo enpresek egindako lanak, materiala, hornigaiak eta bestelakoak, makinaria eta altzariak eta gainerakoak.

Gastuen eta Inbertsioen aurrekontua guztira: 3.840.400 €

6.1.1 Langileak

Guztira 5 langile aurre ikusten dira 2025 urte osoan zehar.

Langileen gastua, guztira: 379.790 €

6.1.2 Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak

Gastu arrunten eta ondare zerbitzuen gastuak 2.460.610 € dira guztira.

Honako kontzeptu hauen arabera xehatzen dira:

- **Errentamenduak:** Jada Eskuzaitzeta Industrialdeko eraikinerako lekualdatu garenez, ez dugu Usabalen orain arte genuen behin-behineko egoitzaren alokairurik ordaindu beharko 2025ean zehar.

Alokairuen gastua, guztira: 0,00 €

- **Konponketa, mantenua eta artapena:** Kontu sail honetan, Mubilen eraikineko konponketa eta mantenu gastu desberdinen lanak aurre ikusten dira.

Konponketen, mantenuaren eta kontserbazioaren guztizko gastua:
240.553 €

- **Materiala, hornigaiak eta bestelakoak:** Eskuzaitzetako eraikineko argindarra, ura, aseguruak, telekomunikazioak, bulegoko materiala... kostuak barneratzen dira atal honetan.

Materialaren, hornigaien eta bestelakoen guztizko gastua: 501.718 €

- **Beste zenbait gastu:**
 - Langileen prestakuntza (8.000 €)
 - Bestelako gastuak, hala nola, harpidetzak, elkarteetako kuotak (10.000 €)

Beste zenbait gasturen guztizko gastua: 18.000 €

- **Profesionalek edo enpresa espezializatuek egindako lanak.** Ohiko jarduerak egiten dituzten bertako langileez gain, zentroarekin lankidetzan arituko diren hainbat arlotan espezializatutako enpresa/profesionalak izango dira:
 - Aholkularitza teknikoa, juridikoa eta kontabilitate-laboral-fiskala
 - Komunikazio estrategia eta publizitatea
 - Azoken antolaketa
 - MMA Sarien antolaketa lanak
 - Garbiketa/higiene lanak
 - Azterlanak
 - Itzulpen zerbitzuak
 - Informatika zerbitzuak (IZFE)
 - Segurtasun sistemak
 - Datu Pertsonalen Babesa
 - Kontuen auditoria
 - ...

Profesionalek edo enpresek espezializatuek egindako lanen guztizko gastua: 1.662.339 €

- **Dietak eta bidaiak:** atal honetan Mubil Fundazioko langileen joan-etorrien, dieten eta antzekoen gastuak sartzen dira, baita egindako bidaien gastuak ere (nazioarteko ferietara, jardunaldietara...).

Dieten eta bidaien guztizko gastua: 38.000 €

6.1.3 Inbertsio errealak

Inbertsio errealetatik eratorritako gastu osoa **1.000.000 €** da eta honako kontzeptu hauen arabera banakatzen da:

- **Makinaria:** Azpiegitura teknologikorako punta-puntako makinak, Mubilen eraikin berrian instalatuko liratekeenak.

Makinen ataleko inbertsio errealen guztizko gastua: 920.000 €

- **Altzariak eta lanabesak:** Mota honetako instalazioentzako erabiltzen diren altzariak:

Altzarien eta lanabesen ataleko inbertsio errealen guztizko gastua: 10.000 €

- **Aplikazio informatikoak:** Webgunearen garapena eta antzeko lanak egiteko behar diren inbertsioak jasotzen dira.

Aplikazio informatikoetan inbertsio errealak: 10.000 €

- **Informazioa prozesuetarako ekipamenduak:** Bezero-postuak garatzeko eta eraikineko gainontzeko ekipoetarako behar diren inbertsioak jasotzen dira.

Informazioa prozesatzeko ekipamenduen inbertsio errealak: 10.000 €

- **Beste instalazio batzuk:** Mubilen behin-betiko egoitzaren egokitzapenerako inbertsioak.

Beste instalazio batzuetako inbertsio errealak: 50.000 €

6.2 Sarrerren aurrekontua.

2025erako, diru-sarrera gehienak oraindik ere iturri publikoen finantzaketaren bitartez izatea aurre ikusten da, baina era berean, MUBIL Fundazioa fakturazio propioa (2024ko irailean abiatu zena) sendotzen joango da.

Sarrerren aurrekontua, guztira: **3.840.400 €**

- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** MUBIL Fundazioaren urteko gastuei aurre egiteko baliatzen direnak:

Gipuzkoako Foru Aldunditik: **2.500.000 €**

Sektore Publikoko gainerako erakundeetatik (Fundae...): **400 €**

Transferentzia eta diru-laguntza arruntak guztira: **2.500.400 €**

- **Ondare sarrerak:** MUBIL Fundazioaren ondaretik eratorritako sarrerak barneratzen dira atal honetan:

Finantza entitateetan ditugun kontuetako interesak: **90.000 €**

Hiri-finken errentamendua (MUBILen behin-betiko egoitzako espazioen alokairu eta erabileratik eratorriak): **250.000 €**

Ondare sarrerak guztira: **340.000 €**

- **Kapital transferentziak:** MUBIL Fundazioaren inbertsioei aurre egiteko baliatzen direnak:

Gipuzkoako Foru Aldunditik: **1.000.000 €**

Kapital transferentziak guztira: **1.000.000 €**

2025. URTEKO AZALPEN TXOSTENA

MUBIL FUNDAZIOA

2024 urtean, MUBIL Fundazioaren behin betiko eraikina bukatu da, eta MUBIL Eskuzaitzeta Industrialdeko (Zubieta-Donostia) eraikin berrira mugitu da, horrela, pauso garrantzitsu bat emanez. Aldi berean, 1 Laborategiko ekipamendua Tolosako behin behineko eraikinetik Eskuzaitzetako egoitzara lekualdatu da, eta era honetan, orain arteko lortutako erreferentzia kontsolidatu zein handitu egin da. Izan ere, 1 Laborategiaren erabiltzaile desberdinei zerbitzua ematen ari gara dagoeneko erreberentziatzko leku izango den gure egoitza berrian.

Honez gain, bestelako urrats garrantzitsuak ere eman dira. Izan ere, Eskuzaitzetako MUBILen beste bi laborategietako azpiegituren obrak 2024 amaieran bukatuko dira. Hartara, bi laborategi hauen bidez (Lab 2: Trakzio elektrikoko laborategia / Lab 3: hidrogenoaren inguruko laborategia) lehen mailako ekipamendua instalatuta izango genuke, 2025eko hasieran dena prest izanik. 2024an, Lab 2 eta Lab 3 laborategiak kudeatuko dituen gestore teknologikoa ere aukeratua izan da, lizitazio bidez, eta kontratua ere sinatuta dago. EpowerLabs izango da bi laborategi berri hauek kudeatuko dituen gestorea. Aipatu Epowerlabs mundu mailako enpresa sendotetan aritutako profesionalen osaturik dagoela, zeinak urte asko mugikortasun elektrikoaren esparruan lanean ibilitakoak diren.

Aldi berean, MUBIL Poloaren garapenean aurrerapauso esanguratsuak ematen jarraitzen dugu. MUBIL Fundazioaren behin betiko egoitzaz gain, MUBIL Poloan kokatuko diren Vicomtech-en zein Cidetec-en egoitza berriak eraikitzen ari baitira, biak ere MUBIL-en egoitzaren ondoan, oso gertu. Era honetan, MUBIL Poloaren sendotzen ari diren pausoak ere ematen ari gara. Ildo berean, Tecnaliaren eraikinaren obrak ere 2024 amaieran hasiko lirateke.

Bestalde, MUBILen aurrez martxan genituen gainontzeko hiru lan-eremuetan (Ezagutzaren kudeaketa, Ekintzailatza eta Living Lab-ean) ere lanean jarraitzen dugu, zerbitzu eta produktu berriak definituz eta aurretik zetozenak indartuz eta garatuz (MMA Sariak, prestakuntza-ikastaroak, lankidetzak hitzarmenak...). Ekintza hauen artean, aipagarria da Mubil Mobility Expo (MME-ren) 2024ko edizioa, non 103 erakusketari industrial batu dituen, eta ia 2000 pertsona egon diren bertan parte hartzen, era batera edo bestera.

Hori horrela, 2025an MUBIL Poloa garatzen jarraitzea funtsezkoa izango da, eta ondorengoak lirateke 2025rako MUBILen jarduera-ildo nagusiak:

- Eskuzaitzetako MUBILen 2 Laborategia eta 3 Laborategiaren inplementazioa bukatzea, era honetan MUBILeko egoitza guztiaren kontsolidazioa gauzatuz, eta eraikin guztia martxan jarriz zein enpresa desberdinei zerbitzu integrala emanaz.
- Ekintzailletza sustatzearekin eta ezagutza kudeatzearekin lotutako zerbitzuak, jarduerak hedatzea eta finkatzea, hala nola, Mubil Mobility Awards (MMA) sarien bosgarren edizioa burutzea.
- MUBIL Poloaren posizionamenduan lan egitea, nazioarteko misioak garatuz eta lotura edo lantalde berriak hedatuz.
- Lurraldeko eragileen lankidetzaren zabaltzea jarraitzea, lan-eremu guztietan.